



LEHENDAKARITZA

Kanpo Harremanetarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA

Secretaría General de
Acción Exterior

Salgaien merkataritza

EBren eta Ipar Irlandaren arteko merkataritzan izan ezik – non aldi iragankorra amaitu ondoren Irlandari eta Ipar Irlandari buruzko Protokoloa aplikatuko den, Ateratze Akordioaren zati dena –, honako hauek dira salgaien merkataritzan sortuko diren ondorio nagusiak:

- **Inportatzailearen/esportatzailearen betebeharrak:** EBko legeriaren arabera, enpresek erantzukizun desberdinak dituzte hornidura-katean dauden lekuaren arabera (adibidez, fabrikatzailea, inportatzailea, handizkako banatzailea, etab). Gaur egun Erresuma Batuko ondasunak erosi eta EBko merkaturatzen dituzten EBko enpresak inportatzaile bihurtuko dira, eta gaur egun Erresuma Batura produktuak banatzen dituztenak, berriz, esportatzaile. Horrek esan nahi du betebeharrak multzo berri bat bete beharko dutela, Europar Batasunaren arau aplikagarrien arabera.
- **Aduana-izapideak, merkantzien egiaztapenak eta kontrolak:** EBko legeriak eskatutako aduana-arauak aplikatuko zaizkie, EBko aduana-lurraldean sartzen diren Erresuma Batuko ondasunei eta baita aduana-lurralde hori utzita Erresuma Batura doazenei ere. EBren eta Erresuma Batuen artean merkataritza askeko asmo handiko gune bat ezarri arren – merkantziatarako muga-zergak eta zero kuotak eta baita aduana eta erregelamendu-lankidetzak ezartzen dituenak – EBren eta Erresuma Batuen arteko ondasun-merkataritza guztiak legearen arabera betetze kontrolak eta inportazioen kontrolak bete beharko ditu; azken hauek, segurtasuna, osasuna eta beste helburu batzuk bermatzeko.
- **Jatorri-arauak:** Enpresek merkaturatutako merkantzien jatorrizko izaera frogatu beharko dute, horiek lehentasunezko tratua jasotzeko eskubidea izan dezaten, etorkizuneko EB eta Erresuma Batuen arteko balizko Akordio batean. Jatorri-baldintzak betetzen ez dituzten merkantziek aduana-eskubideak bete beharko dituzte, baita zero muga-zerga eta kuota ezartzen duten akordio baten kasuan ere. EBren eta bere lehentasunezko bazkideen arteko merkataritzak ere honen eragina jasango du; izan ere, Erresuma Batuko ondasunen edukia – bai materialei dagokienez, bai prozesamenduari dagokionez ere – "ez jatorrizkoa" izango da, Batasunaren lehentasunezko merkataritza-Akordioei jarraiki.
- **BEZa eta zerga bereziak:** BEZa ordaintzeko eta itzultzeko arauak aldatu egingo dira (ondasun eta zerbitzuetarako). Zerga bereziak ondasunak inportatzen direnean ere ordainduko dira, hau da, Erresuma Batutik EBko lurraldean sartzen direnean.
- **Ziurtagiriak, baimenak, markak edo etiketak:** Erresuma Batuko agintariak emandako merkaturatze-baimenak jada ez dira baliozkoak izango produktuak Europar Batasuneko merkaturatze kokatzeko. EBko legediak EBko erakunde baten ziurtagiria eskatzen duen kasuetan – gailu medikoak, makinak edo eraikuntza, adibidez –, Erresuma Batuan egoitza duten erakundeek ziurtatutako produktuak ezin izango dira merkatu bakarrean saldu. Gauza bera gertatuko da alderantziz.